o los problemas relativos al sistema social. El término justicia nacional será para ese militante un término excéntrico seguramente. Admitir que los derechos lingüísticos, culturales, históricos y territoriales propios de una nación catalana independiente son de justicia será una idea extraña. En Euskal Herria, por ejemplo, ¿cuántos relacionan el concepto de justicia con la justicia nacional? ¿A cuántos hemos oído hablar de la justicia nacional con la naturalidad que se habla de la justicia socioeconómica? ¿Cuántos relacionan el concepto de bienestar y de calidad de vida con la libertad nacional? Esas son, entre otras, las consecuencias ideológicas de vivir inmersos con toda naturalidad en la lengua y cultura de la nación dominante.

La justicia, la ética, la moral, la rectitud, los derechos, la dignidad, la libertad, la democracia... y la mayor parte de los demás valores no parecen estar relacionados directamente con el sistema nacional. Al referirnos a esos referentes ideológicos criticamos el "sistema", pero ese sistema no tiene nada que ver normalmente

con la situación de la nación. Este comportamiento es perfectamente comprensible en el caso de los españoles y los franceses, ya que no sufren las injusticias derivadas del sistema nacional. Pero en Cataluña y en Euskal Herria ¿no deberíamos afinar nuestro discurso en esos aspectos?

La libertad nacional conlleva una serie de valores y cualidades singulares en el orden democrático, ético y político que se ponen al servicio de una comunidad con conciencia nacional que quiera organizar su futuro. Will Kymlicka sostiene que dentro de la tradición socialista se ha debatido poco sobre este aspecto: esto es, ¿qué necesidades humanas se satisfacen o se frustran por ser miembro de una determinada cultura nacional? ¿Cuáles son las necesidades humanas que posibilita y que obstaculiza ese tipo de pertenencia cultural? Esa tradición insidiosa de la izquierda ha hecho mella en la historia de las naciones dependientes. La ideología filosocialista ha menospreciado, e incluso despreciado, las luchas por las lenguas y

culturas nacionales sojuzgadas. Para percatarse de ello no hacía falta mencionar a Kymlicka, en Cataluña y Euskal Herria el españolismo de la izquierda no ha hecho otra cosa.

¿Qué va a hacer quien tiene su identidad nacional institucionalizada y naturalizada en un estado? Te denunciarán incesantemente las injusticias del sistema socio-económico para hacer más creíble a cata-

La ideología filosocialista ha menospreciado, e incluso despreciado, las luchas por las lenguas y culturas nacionales sojuzgadas

lanes y vascos el socialimperialismo que llevan en las entrañas. Y esa credibilidad bien que se la han afianzado aquí, donde compiten ajustadamente con el nacionalismo dominante. Esgrimen el argumento de la ciudadanía para defender que ellos no son nacionalistas, como si la ideología de la ciudadanía no dividiera, marginara, humillara y ordenara a la gente en función de las fronteras de las naciones políticas.

Lo que les ha ocurrido a los de la CUP no es, para nada, de extrañar. Si se cree que la libertad nacional es un asunto de segundo orden, o si opinas que se debe conseguir invariablemente junto a otros objetivos, no es de extrañar que se menosprecie el valor liberador de la liberación nacional. Euskal Herria no es un mal laboratorio, en ese aspecto. Efectivamente no somos capaces de discernir las características específicas del problema nacional, para soltar los nudos nacionales que nos inmovilizan; y por tanto, armamos en

el mismo bastidor el problema nacional y las contradicciones sociales, que en sí mismas no vienen relacionadas con la libertad nacional. Para comprobar lo empañado que tenemos el concepto de nación, resulta muy clarificador el discurso que se ha difundido sobre el independentismo y el estado vascos. En nuestro caso, aunque el meollo de la cuestión sea el colapso de la nación vasca, dejando tal como están las circunstancias nacionales, el hecho es que muchos abertzales están dispuestos a trabajar por la consecución del hipotético estado vasco. El otro día oí decir a una conocida feminista: "si ya tenemos nación, vamos a por el estado".

Los españoles y franceses, mientras viven su rutina diaria, no necesitan preocuparse de los problemas de libertad que conlleva ser miembro de una nación negada. A pesar de la alienación de la desnacionalización, el modo de vida del vasco medio coincide con el de un espa-

ñol. Así nos va la vida a los vascos de derecha y de izquierda mientras hacemos otras cosas; como si la vasquedad no estuviera directamente relacionada con la calidad de vida, el bienestar y la libertad.

Para ver cómo se ha desvalorizado el concepto de nación, basta con seguir el nuevo discurso que se ha apoderado del independentismo

Identidad política y antropológica

Cuando hablamos de identidades, es conveniente diferenciar entre la identidad política y antropológica. La primera la determina la voluntad; la segunda no.

Pero, ¿por qué suscita tanto interés la antropología en Euskal Herria? Por el nacionalismo, dado que ha utilizado la identidad antropológica para articular la identidad política.

Todas las definiciones de identidad crean un nosotros y un ellos. Utilizan la lógica de la diferencia. En el caso de la identidad antropológica, la frontera entre los dos grupos es inamovible. En el caso de la identidad política, en cambio, su formulación, si es eficaz, tiene que ser capaz de mover la frontera y atraer a cuanto más gente mejor. Darle carácter político a la identidad (antropológica) vasca genera fronteras estrechas. Responde a la lógica de la resistencia, no a la de expansión. Desde el euskera, desde la cultura vasca... no se tiene que construir la diferencia, sino la igualdad,

Unai Apaolaza

Identitateaz

Eneko Bidegain

Enbata

Es preocupante que abertzales relativicen el euskera en nombre de un discurso más abierto

Azken hilabeteetako eztabaidea gai handi bat bihurtu da identitatearen gaia, Euskal Herrian, bereziki ezker abertzalean edo haren inguruan. Estrategiaz mintzo diren batzuek diote ez daitekeela independentziaren alde biderik egin, euskal nortasunaren ardatza erdigunean ezartzen bada. Euskal Herriko herritarren gehien-goa ez da euskalduna, eta haien eta abertzaleak ez direnak independentziaren ideiara biltzeko ez omen du balio euskararen gaia azpimarratzeak.

Horrek kontrako eragina luke: independentziaren aldeko sostengu berririk ez lortzea. Hori ulertarazten digute, bederen, zenbait pentsalarik. “Izateari utz diezaiogun, izaten hasteko”, “euskaldunak bere buruaz beste egin behar du” diote batzuek, euskaltasuna erdigunean ezartzea oztopo delakoan.

Independentziaren aldeko babes %85ekoa izatea nahi badugu, hobeki bizitzearen aldeko argudioarekin lan egin behar omen dugu, eta ez identitate parametroetan.

Eztabaidea horrek bazterrak harrotzen ari ditu, sako-nean. Bere burua espanyiar edo frantses sentitzen duen batek uko eginen ote die estatu horiei, hobeki bizitzeko” menturan?

Argudio aski sendoa ote da “hobeki bizitzearena”? Zein berme daukagu hori baiezatzeko? Jende horrek ez badu bat egiten euskararekin eta euskal identitatearekin, bizi hobetzat joko ote du Euskal Herri independente eta euskaldun batean bizitza? Euskaraz ikasi behar izatea?

Azken urteetan, euskararen aldeko jarrera ahuldu da Euskal Herriko gizartearen baitan. Gero eta ozenago entzuten dira euskararen kontrako kritikak, besteak beste EGA azterketaren kontrakoak (zailegia omen da), lanpostu publikoetan euskara eskatzearen kontrakoak...

Kanpotik heldu direnek euskara ikasi behar ote dut? Ala nahi badute bakarrik (kontuan hartuz erdara nahi ala ez ikasi behar dutela)?

**Ese nuevo
discurso puede
alejar a la gente
que cree que el
eusker es
fundamental**

Anitz dira (eus-kaldunak barne) horrek hautazkoa izan behar duela diotenak.

Eta testuinguru horretan, faktore kezkagarria da abertzaleek berek euskarenaren inguruko postura malgutzea, diskurtso ustez ireki horren izenean. Horrek euskara oraino ahulago bihurtzea baizik ez dakar.

Eta mugimendu abertzalean zatiketa sor dezake. Beharbada abertzale ez den jende gutik bat eginen du independentismoarekin, nahiz eta hizkuntzari buruzko jarrera leundu.

Segur da, ordea, euskara funsezkoztat daukatenak urrunduko direla euskarari garrantzia kentzearen aldeko diskurtsoa duten taldeetik. Euskal Herriko gizartea bitan zatitua da. Bainazker abertzalearen inguruko pentsalari batzuen

analisiak ez ditu azalpen onak ematen.

Orain zabaltzen ari den bertsioaren arabera, zatiketa horren eta independentismoaren ahuleziaren arrazoia da abertzaleek espainolen/frantsesen eta euskaldunen arteko lehiatik planteatu dutela beren estrategia.

Eta hori txarra izan dela, eta horrela pentsatzen segitzea txarra dela urrunago joan nahi bada. Hori izan omen da azken 50 urteetako estrategiaren akatsa.


Garbiki mintza gaitzen. Azken 50 urteetan zatiketa sendotu bada eta independentziak eta euskarak jendea bereganatzea ez badute lortu, ez da planteamendu horregatik izan, baizik eta Euskal Herriaren askatasunaren izenean ehunka

lagun erail direlako ia mende erdi batez. Ez da hori arrazoi bakarra, bistan da. Espainiaren eta Frantziaren zapalkuntza gogorra ere aipatu behar da, eta Estatu horiek eskura dituzten baliabide izugarriak jendea espainolago edo frantsesago sentitzeko.


Baina bakoitzak bere ardurak: aitzineko estrategiaren akatsa ez da izan identitatearen azpimarratzea.

Eta estrategia haren irakurketa makurretatik abiatuz ezin da sortu herri hau askeago eta euskaldunago sortuko duen estrategia bat.

**El problema de la
estrategia
anterior no ha
sido subrayar el
aspecto
identitario sino la
violencia
empleada**



Buscando adhesiones



31

Santi Leoné

Etzi.pm

A diferencia de otras cosas del Velódromo, me parecieron muy acertadas estas palabras de Arnaldo Otegi —cito el párrafo de memoria, aunque esté entre comillas, no se trata por tanto de una transcripción literal—: “*si viéramos que es posible una reforma del Estado Español, estaríamos dispuestos a colaborar con todos los partidos reformistas, pero no creemos que el estado se pueda reformar*”. Esa declaración provocó la inmediata respuesta del líder de Podemos, Pablo Iglesias —en esta ocasión vuelvo a citar de memoria, aunque vaya entrecomillado—: “*Yo creo en mi país, y creo que es posible reformar este estado*”.

Y ciertamente estoy de acuerdo con Otegi: yo también creo que el Estado Español es irreformable —bueno, supongo que sería enormemente difícil, que requeriría un esfuerzo que no merece la pena—; aun diría más, sobre éso estoy escribiendo, o tratando de escribir, por lo que intento ir más allá de unas simples suposiciones para fundamentar con argumentos mi punto de vista. Quiero pensar que tanto Iglesias, como Otegi, tienen sus moti-

vos para defender cada uno su postura, pero sospecho que la conclusión —España se puede reformar / no se puede reformar— en este caso precede a la argumentación, y en el fondo se basa en el sentimiento nacional de cada uno.

¿Quiero un estado independiente porque España es un estado fracasado o, bien, porque quiero un estado independiente pienso que España es un estado fracasado? Dicho de otro modo: ¿Cómo hacer ver a los ciudadanos vascos hartos del Estado Español, pero que aún no son independentistas, que la vía correcta es buscar la independencia, en vez de la reforma del Estado Español? Dicho de otro modo: ¿cómo buscar adhesiones al proyecto independentista?

Me vais a disculpar si pongo de nuevo el ejemplo de Navarra: al cabo de todos estos años, cuando el PSN ha perdido toda credibilidad, cuando ya nadie toma a ese partido como partido de izquierdas... ¿qué puede llevar a gente que sí se tiene de izquierdas a votar a ese partido en Navarra? Pues el españolismo, la identidad, se niegan a ver la evidencia de que el partido del cambio no trae, ni traerá, ningún cambio.

¿Quiero un estado independiente porque España es un estado fracasado? o ¿creo que España es un estado fracasado porque quiero un estado independiente?

En el ensayo “Lapur banden etika ala politika” (La ética de las bandas de ladrones o la política) Joseba Sarriónandia afirma —y esta vez la cita es literal— “Syriza, Podemos y Bildu son, a mi entender, lo mismo, si dejamos de lado las referencias nacionales” (pg. 94); pero no, yo no estoy de acuerdo, porque proceden de distintos orígenes y se dirigen a distintos destinos: no es lo mismo querer reformar un estado existente que querer crear uno nuevo. Pero en otro punto de la obra Sarriónandia nos dice: “Necesitamos una nación, para ser un estado” (pg. 80); “Antes de un estado-nación, necesitamos una nación, un proyecto bien pensado y atractivo para el conjunto de la sociedad” (pg. 81). En el texto que Imanol Galforsoro ha aportado al libro “Independentzia helburu” (La independencia como objetivo) se puede leer, también aquí literalmen-

te: “Entre el pasado mítico y el presente histórico no se puede establecer un nexo político directo” (pg. 300); y poco después se afirma: “La existencia de ese estado (de Euskal Herria), por tanto, derivará de la aceptación de que es una absoluta contingencia de la misma construcción histórica: no hay razones históricas intrínsecas para la evolución o no evolución de Euskal Herria” (pg. 309); y con éso sí que estoy de acuerdo; esa frase la suscribiría sin objeciones.

Otra cosa es si interesa debatir sobre la construcción del estado, como si ya tuviéramos diseñada la nación, como si tuviéramos suficiente consenso en torno a ella —y no estamos de acuerdo ni siquiera en lo referente a la territorialidad, como nos lo recordaría Luistxo Fernández—. Tenemos que articular de alguna manera la contingencia histórica que es nuestra nación; de otro modo, siempre estaremos expuestos a la respuesta de Pablo Iglesias: ¿por qué no reformamos el estado, en vez de crear otro nuevo? Porque en el horizonte de ambos se encuentra una utopía similar.



Euskal estatua

Herrigintza ala estatugintza

Jule Goikoetxea

Berria 2015/04/14

La autogestión comunitaria en la Europa del siglo XXI no es una práctica en contra de Estado, sino un conjunto de prácticas para democratizar el Estado

Herrigintza eta estatugintza beti kontrajariak direla pentasen dutenak anarkismoaren XVII. mendeko zuztar liberalean itsatsirik geratu dira. Sistema demokratikoetako gizarteak estatalizatuak baitira. Estatua ez da justizia sistema, aldundiak, polizia eta ogasuna soilik, epaileek, poliziek, gurasoek, irakasleek, garbitzaileek, sindikalisten, etxeoandreek, laburbilduz, herritarrek hezurmamitzen dute Estatua. Estatuak ezarritako ordutegian lanera joatea da estatugintza, supermerkatuan edo kooperatiban erositako olioak hartzea eta umeak goizero eskolara eramatea. Bourdieuak dioen moduan, puntual alegatzen diren anarkistak ere estatugintzan dabilta. Herrigintza XXI. mendeko Europan ez da Estatuaren kontrako praktika, Estatua demokratizatzeko praktika multzoa baizik, ezin baita demokraziarik egon herriaren eskakizunak gauzatu gabe, gauzatze hori, aldiz, erakundeen bidez egiten da, eta ahalmen politiko handiena duen erakunde multzoa Estatua da.

Herrigintza aratzean dabilzala uste duten letxuga autogestionatuek errepideak behar dituzte bidaitzeko, guzion zerga sistema estatalaren bidez sortutakoak. Bestetik, sarritan jartzen dira letxuga autogestionatuon jabeak gaixo, beraz, osasun sistema ere behar da, baina horretarako eskola eta goi-hezkuntza sistema publikoa,



hots, estandarra, nekazari, garraiola-ri eta erosle gaixo horiek sendatzeko behar diren medikuak eta erizainak zein eskaner berriak asmatuko dituzten ingeniariek heztekoi, ospitalea garbituko duten eta gaixoei baziaria egingo dieten langileen multzoa sortzeko. Estatu aparatuaren gune organikoa eta produktiboa guraso-ek, sindikatuek, enpresari elkartuek, mugimendu sozialek, hedabideek, Osakidetzako eta Osasunbideko staffak, irakasleek, gizarte hezitzaleek eta familia heteropatriarkalak taxutzen dute. Zaittasunak sortzen omen ditu ulertzea Estatu aparatu modernorik gabe ez liratekeela gizarte zibilik, familia nuklearrik ez sindikaturik existituko, ezta garraio, eskola, osasun eta justizia sistema publikorik ere. Estatugintza gizartean sakabanatuak dauden hamaika mikro-praktika dira, horregatik, estatugintza eta herrigintzaren arteko

zatiketak ez du, zenbait eremuetan, inolako esanahirik, batetik, herria estatalizatua dagoelako, eta, bestetik, estatugintza herritarrek egiten dutelako.

Hegoaldean ditugun Euskal Estatu Erakundeek (EEE), oraingoz espainiarak direnak europarrak eta euskaldunak bezain beste, baliabide eta ahalmen politiko, ekonomiko eta sozial zehatzak dituzte, baina baliabide horiek gure lurrardeetan bizi diren herritarren egungo mobilizazio eta ekoizpen mailaren araberakoak dira, ez soilik konstituzio, menderatze eta eskubide historikoek diotena-ren araberakoak. Jakin badakigu EEEen ahalmen politikoa oso prekarioa dela Estatu soberanoekin alde-ratuta, baina berebizikoa da ulertzea NFE eta EAE bezalako unitate administratiboek dituzten ahalmen eta ondorio juridiko eta politikoak, identitate berriak sortu eta zaharrak des-

berdinki birsortzen dituzten sistemak baitira, demokratizazio ororen zutabe, alegia. Nola erabili erakundeok euskal estatugintzarako? Espainiarak direnez Euskal estatugintzarako balio ez dutela erantzuten duenak, egin dezala lagunez eta ez politologoz inguratuta, milesker. Politika beti da politika alderatua. Jakiteko zergatik duten batzuek ongizate maila altuagoa edo jabe-kuntza muritzagoa edota zergatik den espainolagoa, euskaldunagoa edo frantsesagoa lurralte hura, ezin-bestekoa da kapitalen eratze, metaketa eta distribuzio moduak azaltzea, eta, horretarako, ezinbestekoa da EEEen implikazio material eta simbolikoak aztertu eta erabiltzea.

Hegoaldean erdietsi ditugun ongi-zate maila ezberdinak eta identitate anitzak EEEk lortu duten ahalmen politikoari lotuak daude eta azken hauen ahalmen politikoa, aldi berean, iraganeko eta egungo gizarte mobilizazioaren araberakoa da. Azpimarratu nahi dudana da, herriak sortzen duela estatua, demokraziarik ez dagoela estaturik gabe eta Euskal Demokraziak eskatzen duena auzolanari Estatu-senarekin ekitea dela, herrigintza estatala egitea, alegia.

El grado de bienestar obtenido en Hegoalde está ligado a la capacidad política obtenida por las Instituciones Estatales Vascas, y esta capacidad política proviene de las movilizaciones del pasado y del presente

Euskal estatuaz

Ane Larrinaga

Berria 2016/02/21

**Hemos realizado
un estudio para
conocer las
opiniones y
posiciones que
hay en la
sociedad vasca
sobre el Estado
Vasco**

Azken urteetan Eskoziako eta Kataluniako burujabetza prozesuek astindua eragin dute Europako esparru politikoan; batez ere, estatu berrien sorrerarako aukera objektiboak ireki dituztelako. Besteak beste, herritarren borondatean oinarrituta egotean, estatu berrien eraikuntza demokratikoa egingarri dela erakutsi diete orain arte halako aldatetik egitea ezinezkotzat jotzen zuten askori. Horregatik, zer esanik ez, Euskal Herritik ere arretaz eta ikusminez begiratu dira prozesuok, eta eztabaideak eta azterketak sortu dituzte, ugari, gure artean. Halaz ere, une honetara arte ez da egon euskal herritarrek balizko Euskal Estatu batez dituzten iritziei buruzko informazio soziologiko zehatzik.

Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerkuntza taldeak (Ipar Hegoa fundazioaren laguntzarekin) Euskal Estatuari buruzko ikerketa bat burutu du oraintsu, zertarako eta Euskal Estatuaz euskal gizartean dauden iritziak eta jarrerak zehatz ezagutzeko. Egindako azterlanak biberitasun ditu. Lehenengoa, hauturiko aztergaia bera da, estatu. Izan ere, orain arte autonomiaz, independentzia eta erabakitzeko eskubideaz galdu zaie euskal herritarrei behin baino gehiagotan, baina ez, zuzenean, estatuaz. Bigarrena, ikerketaren eremua da. Hain zuen ere, orain arteko lanetan ez bezala, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan gauzatu da aipatu

azterketa. Eremu horretako herritarren iritziak jaso dira inkestaren bitartez, eta haien arrazoia interpretatu dira, eztabaidea-taldeak eratuta. Bi hautaketa horiek, alegia, ikerketaren gaia eta eremua zehazten dituztenak, ez dira ausazkoak izan. Batetik, estatuaren egitura politikoa aztertu nahi izan da, eta, hartara, egitura horrek herritarren helburuekin eta itxaropenekin dituen loturak (politika sozialaren, ekonomian, kulturan...), edozein dela herritar horien nazio-identitatea edo ideologia. Bestetik, Euskal Herria ulertzeko (eta izendatzeko) modu asko dagoen arren, Ipar eta Hego Euskal Herriak osaturiko eremua hartu da, eragin handiagoz edo txikiagoz, lurralte horietan guztietañ jarri izan delako auzitan indarrean dagoen (tokian tokiko) estatuaren zilegitasuna eta hari buruzko atxikimendua.

Ikerketaren emaitzen artean, binabarmendu nahi ditut hemen, Euskal Estatuari buruz euskal herritarren artean gaur egun dauden iritzi-joera esanguratsu batzuk adierazten dituztelakoan. Lehen ekarpena ikerketaren galdera nagusiari eman-dako erantzunari lotuta dago. Euskal Estatu baten aukera mahai gainean jarrita, jendeari haren alde edo kontra bozkatuko lukeen galdu zaionean, inkestaturiko gehienek alde egingo luketela esan dute (%40,7); beste askok, berriz, kontra egingo luketela adierazi dute (%35,3). Eta kontuan hartzeko da lautik batek (%24) ez

duela erantzunik eman edo abstentitu egingo litzatekeela dioela. Datu horiek, noski, propozizio desberdinak era-kusten dituzte administrazio-eremu muen arabera

xehatuz gero. Hala, EAEn agertzen da aldekotasunaren mailarik altuena, eta jaitsi egiten da Nafarroako Foru Erkidegoan eta, are modu nabarmenagoan, Ipar Euskal Herrian. Bestalde, Euskal Estatuaren aldeko jarrera hori handiagoa da herritarren artean zenbat eta gazteago izan, zenbat eta ikasketa maila handiagoa izan, zenbat eta hurbilago egon aukera politiko abertzaleetik, zenbat eta euskara gehiago jakin eta, ikuspegi nazionalistik, zenbat eta euskal herritarrago edo nafarrago sentitu. Era berean, aldeko jarrera hori indartu egiten da inkestatua eta guraso biak Euskal Herrian jaioak badira eta, aldiz, ahuldu, guraso biak eta inkestatua Spainian edo Frantzian jaio badira (ez, ordea beste estatu batean jaio badira; etorkin berriak, adibidez).

Bestalde, independentziaren alde edo kontra egotea nahiko iritzi finkoa izan bada ere, Euskal Estatuaren alde edo kontra egotea aldakorra izan daitekeela erakutsi du ikerketa honek. Izan ere, estatua lurralte jakin batean eraikitzen den egitura politikoa izatean, herritarrek asebetetzea erakusten dio haren helburu eta itxaropenei erantzuteko gauza den heinean, eta hala egin dute inkestaturiko herritarrek ere estatu berriaren proiektuari dagokionez. Ildo horretan, honako hau da nabarmendu nahi dudan bigarren emait-


Los encuestados que se oponen a un Estado Vasco han dicho que cambiarían de opinión si se impulsaran mejores políticas y más democráticas que las de España o Francia para mejorar el bienestar de la gente

za: Euskal Estatuaren kontrako jarrera erakutsi duten inkestatuak prest leudeke aldatzeko, eta, beraz, Euskal Estatuari baietta emateko, gaur

egun Spainian edo Frantzian eskaintzen direnak baino gizarte politika hobeak edo demokrazia gehiago ziurtatuko balira. Hala dio ezetza ematen dutenen ia erdiak. Neurri txikiagoan, beste herritar multzo bat (%40 inguru) ere gertu dago aldatzeko oraingoa baino egoera ekonomiko hobea edo Europar

Batasunaren barruan jarraituko dela ziurtatuko balitz. Alderantzizko norabidean, Euskal Estatuaren aldeko botoa eman duen jendea prest lego ke iritziz kanbiatzeko, eta Euskal Estatuari ezetza emateko, batez ere, euskararen alde nahikoa ez dela egin pentsatuko balitz. Aldeko auke ra egin dutenen bi herenek horixe dio. Neurri apalagoan, estatu berriak ez balitu ziurtatuko gizarte politika egonkorragoak, Europar Batasunaren barruan jarraitzea, eta egoera ekonomikoa hobetzea, %30-40 inguruk aldatuko luke botoa ezet zera.

Datu interesgarriak, nonbait, gogoetarako.



Lehiatu ala saretu?

Lehia borroken artean?

Unai Oñederra

mrafundazioa.eus

Irudipena dut euskalgintza apur bat astindu duela independentziaren inguruko diskurtso berriak. Niretzat haize freskoa izan dena kezkagarria zaio zenbaiti, irrigarria besterik. Euskara alboratuko ote den, lurraldetasuna baztertu, historia gutxiesi... Normala da, modu probokatzainen egin baita diskurtso berri hau, eztabaida pizteko asmoz. Helburua lortua.

Dena den, sentsazioa dut euskal-gintzak defentsiban erantzun duela, hobea bizitzeko independentzia eta euskaraz bizitzeko independentzia kontrajarriak bailiran. Esango nuke, lehia hori piztea leporatu diotela Unai Apaolazari. Zergatik ez dakit, Apaolazak oso argi hitz egin baitu: "Ez dago mailaketa bat independentziarako arrazoien artean"; "Ongizatea izango da alor guztietai, bai ekonomikoan, bai "identitario" deitzen diogun horretan eta denean; denak suspertu behar dira, denak bultzatu".

Apaolazari iruditzen zaio zapaldu-ta bizi garela, espainiarren zein frant-

ziaren eta euskal herritarren arteko botere harremana oso desorekatua dagoela, eta egoera aldatu nahi du, berdintasuna lortze aldera. Horretarako independentziaren aldeko borrokara erakarri nahi du ahalik eta jende gehien, izan abertzale edo ez, izan euskaldun edo ez. Normala da, burujabetza indar-harreman kontua baita; zenbat eta independentista gehiago lortu, orduan eta aukera handiagoa gauzak aldatzeko.

Gizon eta emakumeen arteko botere harremana ere guztiz desorekatua dago. Emakumeak zapalduta bizi dira. Feminismoek emakumeen ahalduntzearen alde borrokatzen dute, emakumeak burujabe izan daitzen. Patriarkatuarekin amaitzeko ahalik eta jende gehiena batu behar dute borrokara, izan abertzale edo ez, izan euskaldun edo ez, izan emakume edo ez, indar-harreman kontua baita sistema aldatzea. Eta gogor borrokatu beharko dute mugimendu feministek hori lortzeko, beraiek ez badute egiten, ez baitu beste inork egingo.



ELA prest dago proposamenok beste indar sindikal eta politikoekin zehazteko; gure eginkizuna ez da instrumentalala izango

Era berean, langile mugimenduak langileen burujabetza bilatzen du, langileak antolatuz eta borrokatzu. Sorreratik izan da borroka kolektiboa, langilearen eta ugazabaren arteko botere harremana guztiz desorekatua baita. Zenbat eta langile gehiago batu, orduan eta indar handiagoa gauzak aldatzeko. Horregatik bilatzen ditu sindikatuak langile abertzaleak eta ez abertzaleak, euskaldunak eta erdaldunak, bertan jaioak eta kanpotik etorriak, helburua baita ahalik eta indar handiena aktibatzea zapalkuntza sortzen duen kapitalismoarekin amaitzeko. Langile mugimenduak borrokatu behar du langileen lan- eta bizi-balintzak hobetzeko, bestela, beste inork ez baitu egingo.

Esan izan dute lan erreforma, esaterako, ez dela sindikatuen kontua soiliik, zabalagoa dela, legea aldatu gabe ez dela lan erreforma atzera botako. Gertatzen dena da alderdiek hamaika kontu izanda, ez dituztela

langileen beharrak lehenetsiko, langileak aktibatu eta mugimendu indartsu bat sortzen ez dugun bitartean. Eta hori langile mugimenduaren ardura da.

Berdin gertatzen zaio euskalgintzari. Euskararen menpeko egoera aldatu nahi du, eta horretarako ezinbestekoa du jende gehiago euskaren aldeko borrokara biltzea. Erakarri nahi ditu abertzaleak eta ez abertzaleak. Erakarri nahi ditu euskaldunak eta erdaldunak.

Orain, independentismoan sortzen ari den diskurso berria kritikatzen du, hobe bizitza lehenesten duelako euskara baztertz (ez dakit euskaraz sortu eta adierazten den diskursoak zein puntutan baztertu duen euskara). Gertatzen dena da, independentista izateko arrazoi asko dagoela, eta euskara izarra izatea nahi duenak gogor borrokatu beharko du hori lortzeko.


Askotan, gure ardura dena ez dugu behar bezala egiten, edo ez dugu, behintzat, nahi ditugun emaitzak lortzen, eta besteei leporatzen dizkiegu gure gabeziak. Ulertzen baitut, euskararen alde ari direnak, ere, hobe bizitzeko egiten dutela. Hemen, denok nahi dugu bizitza tokatu zaigun epe labur honetan ahalik eta hobe bizi. Asmatu nahi dugu, besteak beste, hau delako daukagun bizitza bakarra. Hemen eta orain asmatzen dugu, edo akabo. Eta, kontrajarria badirudi ere, batzuk geure bizitza konplikatuta hobe bizi gara, horrek zentzuz betetzen baitu mundu honetan egiten ari garen ibilaldia.

E egunaren zain ez dugu egon behar. Burujabetza egunero eraiki behar da. Zapalduen burujabetza, elikadura burujabetza, energia burujabetza, ekonomia burujabetza... Egunero eraikitzen joan behar dugu burujabetza hori, burujabetza borroka desberdinak saretuz (Alternatiben Herrian egin zen bezala), bai baitakigu Euskal Herria independentea denean ez dela izango ez euskalduna, ez sozialista, ez feminista, ez ekologista, ez guztiz demokratikoa, ez burujabea. Borrokak eta eraikuntzak jarraitu beharko du.

Orduan zertan gabiltza? Gure ondorengoei mundu hobea uzten saiatzen; geure bizitza zentzuz betetzen saiatzen. Burujabetza borroka desberdinak saretu. Lehia? Zapalkuntzari.

Argitaratutakoak

- 10 LA SEGURIDAD SOCIAL: ELEMENTO BÁSICO DE SOLIDARIDAD. 1995. URRIA
- 11 TIEMPO DE TRABAJO Y EMPLEO. 1996. URTARRILLA
- 12 POR UNA FISCALIDAD JUSTA Y SOLIDARIA. 1996. EKAINA
- 13 TÓPICOS Y REALIDADES SOBRE LOS SALARIOS. 1996. URRIA
- 15 LA POLÍTICA ECONÓMICA CUESTIONADA. 1997. ABENDUA
- 16 LA REDUCCIÓN DEL TIEMPO DE TRABAJO Y EL EMPLEO. 1998. MAIATZA
- 17 COMPROMETIDOS CON EL AUTOGOBIERNO Y EL MARCO VASCO DE RELACIONES SOCIALES Y LABORALES. 1998. ABENDUA
- 18 PROPUESTAS PARA UN NUEVO ESCENARIO. UNA SÍNTESIS DESDE LA MILITANCIA SINDICAL. 1999. URRIA
- 19 CRECE LA CONTESTACIÓN CONTRA LA GLOBALIZACIÓN NEOLIBERAL. 2000. MAIATZA
- 20 JOAQUÍN NAVARRO ESTEBAN: UNA VISIÓN INDEPENDIENTE DEL PROBLEMA VASCO. 2000. URRIA
- 21 FORO SOCIAL MUNDIAL: PORTO ALEGRE BESTELAKO MUNDUA POSIBLE DA. 2001. APIRILA
- 22 DESDE PORTO ALEGRE A FLORENCIA PASANDO POR BARCELONA. 2002. AZAROA
- 23 EGUNKARIAREN ITXIERA. EUSKALGINTZAREN ETA EUSKALZALEEN AURKAKO OPERAZIOA. 2003. EKAINA
- 24 NEW ORLEANS: IRAGARRITAKO HONDAMENDIA. LA CATÁSTROFE NEOLIBERAL. 2005. URRIA
- 25 FRANTZIAKO ISTILUAK. EL NOVIEMBRE FRANCÉS. 2006. URTARRILA
- 26 MUNDUKO MERKATARITZA ERAKUNDEA: ESKUBIDEAK SALGAI. 2006. APIRILA
- 27 IRAILAREN 11, ESKUBIDEAK PIKUTARA? DERECHOS EN JAQUE. LA FIN DES DROITS? 2006. AZAROA
- 28 NON AU CPE: UN AN DÉJÀ.
- 29 XXI. MENDEKO SINDIKALISMOA. SINDICALISMO DEL SIGLO XXI.
- 30 BESTELAKO SINDIKALISMO BATI BURUZKO MINTEGI BATEN KRONIKA. 2007. ABENDUA
- 31 KAPITALISMOA EROTU AL DA? 2008. MAIATZA
- 32 MERKATARIEN EUROPA HONETAN, SINDIKALGINTZA KINKA LARRIAN. 2008. EKAINA
- 33 ASKATASUN SINDIKALARI BURUZKO MINTEGI BATEN KRONIKA. 2008. IRAILA
- 34 EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA. 2008. ABENDUA
- 35 KRISIA ETA LANGILERIA. ERANTZUTEKO BEHARRA. 2009. APIRILA
- 36 KRISIA IRTENBIDEAK ETA ERANTZUN SINDIKALA. 2009. AZAROA.
- 37 ETORKINEN PATUA (HIPO)KRISIAK JOTAKO EGUNOTAN. 2010. APIRILA
- 38 FINANZA MERKATUEN ESTATU-KOLPEA. GOLPE DE ESTADO AL BIENESTAR. 2010. JUNIO
- 39 PLAN DE ESTABILIDAD Y RECORTES SOCIALES EN EUROPA. 2010. NOVIEMBRE
- 40 LA CRISIS QUE NO CESÁ. 2011. FEBRERO
- 41 GURE INDARRA, GUZTION BABESA. 2011. MAIATZA
- 42 RENOVACIÓN SINDICAL. 2011. ABENDUA
- 43 FINANTZEN DIKTADURATIK DEMOKRAZIARA. 2012. APIRILA
- 44 ZORRA XANTAI GISA. AUDITORÍA DE DEUDA Y ALTERNATIVAS A LAS POLÍTICAS DE AJUSTE. 2012. IRAILA
- 45 NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA LAN ERREFORMA GARAIAN. EJEMPLOS DE LUCHAS. 2013. MAIATZA
- 46 LA VIA CATALANA. CAP A LA INDEPENDÈNCIA. 2013. URRIA
- 47 ERASOAK ORDEZKARITZA KOLEKTIBOARI. INNOVACIÓN SINDICAL. 2014. URRIA
- 48 BURUJABETZA. CUESTIÓN SOCIAL Y CUESTIÓN NACIONAL. 2015 APIRILA
- 49 EUSKAL HERRIKO ZERGA SISTEMA. ALTERNATIVAS FISCALES. 2015 IRAILA.
- 50 IDENTITATEA, DEMOKRAZIA, ONGIZATEA... 2016 MAIATZA



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA